

IRAGARKIA

2022ko uztailaren 20an Udalak egindako Osoko Bilkuran, ondoan eta idatzirik dagoen akordioa onartu zen:

---“16. 2022/14 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (HAURTZAINDEGIKO OBRAK). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.

- Udal kontu-hartzaileak 2022ko uztailaren 19an egindako txostenak adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-3231-622200. Haurtzaindegiko obrak. 5.000,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 5.000,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 5.000,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2022/14 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kredituak).

2. Jendurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldi, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespeneren erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldatketaren behin betiko onespeneri buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.”-----

Argitaratzen da aipatutako ondorioetarako.

Bera, 2022-08-09.
SINADURA DIGITALA.
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.